

Herritarrak

2011ko abendua

INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2011-2015

2.alea



www.berastegi.org

ALDAKETAK UDAL TALDEAN

Joxe Ramon Larrartek zinegotzi kargua utzi du eta Maialen Etxeberriak hartu du haren lekua.

HIRIGINTZA, EKONOMIA ETA INGURUMENA

- Orain arte eta, horretarako lortutako diru-laguntza baten bidez, Ingurumen teknikaria jardun osoan aritu da lanean, (%80 Berastegin eta %20 Elduaienen). Momentuz ez dakigu hurrengo urterako ere diru-laguntzarik emango duten, baina, hala ere, ez da hainbesteko beharra aurreikusten, neurri handi batean aparejadoreak egiten duelako lan horren zati bat; beraz, Ingurumen teknikariaren jarduna %20ra murriztuko da eta bere lana turismoari begirako proiektuak landu eta bideratzea izango da.
- Udalak orain arte alokatuta izan duen lokala egoera txarrean dagoelako, abendutik aurrera Txankane-etxe (Eloi-ene) azpiko eskuineko lokala alokatuko da 2 urterako.
- Gaztainondon argazkiak errebelatzeko dagoen makina konponduko da eta honen erabilera bultzatu nahi da.
- Eskola aurreko futbol zelaiaren ingurua konpontzen hasi dira.
- Parkeko lurra konponduko da.
- Aparkaleku azpiko lokala pixkanaka egokitzen ari gara. Bertako tresneria gordetzeko armairua jarri da eta kortinak ere jarri dira. Lokalaren erabilerrako baimena, orain arte bezala, udaletxean idatziz eskatu behar da.
- Etxe tasatuak: herritarren beharrak antzemateko galdetegi bat banatu da eta lur-jabe ezberdinekin harremanetan gaude aukera ezberdinak aztertzen.
- LANBIDEk, 6 hilabetez, herri lanetarako langile bat hartzeko diru-laguntza eman du; hain zuzen ere, 10.000 € (kostuaren %75). Udalak %25 jarriko du.



- Uholdeen ondorioz, mendi pistak eta Zelaiko erreka izan dira kaltetuenak. Diputazioaren aginduz autobioako sarrera itxita egongo da urtarrilaren 9ra arte, gutxienez. Konponketa lanen ardura nagusia Foru Aldundiak izango du eta herri langileak ere hobetze lanetan arituko dira.

KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA

- Euskara ikasteko diru-laguntzak emango dira eta kostuaren %80 subentzionatuko da. Diru-laguntza jaso ahal izateko %80ko asistentziaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.



euskarari



- UEMAn sartze bidean ginen, baina momentuz bertan behera geratu da asmo hori, gastuei aurre egiteko zailtasunak izango ditugula aurreikusten dugulako.
- Kultur Astearen balorazioa ona izan da eta antolatutako ekintzetan jende askok parte hartu du.

2012KO AURREKONTUAREN INGURUAN

2012rako sarreraren aurreikuspena 1.060.385,35 €koa da eta gastuena aldiz, 1.061.769,28 €koa. Beraz, balantze defizitarioa ateratzen da, hau da, -1.383,93 €koa. Hau ikusita, Udalak zenbait neurri hartzea erabaki du autofinantzaketa lortu asmoz. Alde batetik, zenbait zerga igotzea, eta, bestetik, herriko elkarteei zuzendutako diru-laguntzak beharretara egokitzea.

Zergen igoera

- Ibilgailuen Gaineko Zerga: 1,24tik 1,3ra igoko da eta apirilean kobratuko da.
- Hiri Ondasunen Gaineko Zerga 0,1etik 0,13ra igoko da eta ekainean kobratuko da.
- Landa Lurren Gaineko Zerga: ez du igoerarik izango eta ekainean kobratuko da.
- Ura eta zaborra: %20ko igoera izango dute eta urrian kobratuko dira.
- Plusvalia: 8,12tik 20ra igoko da.

eskubide guztiekin euskal presoak euskal herrira

Urtarrilaren 7an denok Bilbora

HERRI MOBILIZAZIO OROKORRA arratsaldeko 17:30etan. Autobusa antolatu da eta joan nahi duenak izena eman dezala abenduaren 30a baino lehen, Udaletxean edo Urepele Elkartean. Autobusa 8 € ordaindu beharko da, haurrek eta langabetuek dohain izango dute. Animatu!!



2012 URTE BERRI ON OPA DIZUE UDAL TALDEAK DENOI !!!